

GURE ESKOLA, GURE UDALA

Sekuentzia honetan Durangoko udala zelan osatzen den, zelan osatu izan den ikasiko dugu gure eskolan guztioi dagozkigun gaiak guztion artean landu eta erabakiak hartu ahal izateko.

Azken xedea eskolako zuzendaritzari bi gairen gaineko (jantokia eta jolastokia kasu honetan) proposamen bat egitea da, gelako kideen artean landu eta adostutakoa. Horretarako, udalbatza batean egin behar den legez, informazioa bildu, aztertu eta erabakiak hartu beharko ditugu guztion artean.

Mari eta konpainia

Unitate honetako lehen jarduera da, beraz, aurre ezagutzak lantzeko erabiliko dugu. Komikiak Mari eta bere lagunen arteko elkarrizketa bat proposatzen du. Elkarrizketa horretan hurren zein helduen munduan ohikoak diren topikoak errepikatzen dira, hau da, *“besteak”* (helduak edo udal arduradunak izan daitezke kasu honetan) dira beti erabaki okerrak hartzen dituztenak, ados jartzeko gai ez direnak... Eta ardura horiek hartzea geuri balegokigu, gai izango ginateke? Hori da ikasleei pasa gura diegun mezua eta horregatik proposatzen diegu zuzendaritzari proposamen bateratua egitea.

Laguntza galdera batzuk ere proposatzen dira. Inportanteena gaiari buruz hitz egitea eta bakoitzaren bizipenak beste ikasleekin konpartitzea izango da.

Jarduera hau egiteko guztiok elkar entzuteko moduan jarriko gara, borobilean adibidez.

Durangoko udala gaur. “Herritarron erakunde nagusia”

“Herritarron erakunde nagusia” izeneko testua irakurri. Bertan bi ideia nagusi azpimarratzen dira.

Lehenengoa da udala bera dela Durangarrok jasotzen ditugun zerbitzu askoren emailea eta bertan hartzen direla hauei dagozkien erabakiak.

Bigarrenak, gaingiroki azaltzen du nork hautatzen duen udalbatza eta honek zelan hautatzen duen alkatea.

“Zerbitzuak” izeneko ariketan sei argazkien artean udalaren ardura zein den identifikatu behar dute. Kontua ez da ikasleek zenbat dakiten neurtzea, ezpadaze, herritarrok darabilzkigun zerbitzuen ardurak erakunde ezberdinenak direla: udala, amankomunazgoa, Foru Aldundia...

Durangoko kontzejua. “Osaba Bittorrek diño”

Sekuentzia guztietan ohi dugun legez, oraingo honetan ere iraganeko eta gaur egungo Durangoz zerbait gehiago jakin eta alderatzeko tresnak emango dizkiegu ikasleei. Kasu honetan Bittorrek Erdi Aroan Durangoko Kontzejua (gaur egungo udalaren parekoa) zelan hautatzen zen azaltzen dio Mariri.

Zertarako? Iraganeko hautaketa prozesu konplexuez jabetzeko baino gaur egungo egoerarekin alderatzeko elementuak eskaintzeko. Testua irakurri ostean ikasgelako kide guztien artean hausnarketa hori egitea komeniko litzateke: zer aldatu da Erdi Arotik gaurko egunetara? Zein dira garrantzitsuenak iruditzen zaizkien aldaketak?...

Ikaskideen artean ahoz agertu diren aldaketa nabarmenenak idatziz jasoko dira hurrengo ariketan. (“[Lehen eta orain](#)”. Alderatu.)

Sufragio unibertsala

Okerrik ezean, aurreko ariketan idatziz jasotako desberdintasunen artean, emakumearen bozka eskubidearen gaia agertuko da. Atal hau informatiboa edo jakingarria da beraz, ikasleak jakitun izan daitezten Durangoren historia luzean noiztik eman diren eurek normaltzat hartu ditzaketen zenbait egoera, generoen arteko berdintasun edo ezberdintasunaren tartean.

Bazenekien?

Aurreko atala osatzera datorren informazioa da hau ere. Durango sortuz geroztiko sei-zazpi mendeetan, lehenengoz, XX. mendean izan zen estreinako emakume bat herriko organo nagusiaren buru.

Gure eskola gure udala

Atal honetako sarrera testuan, laburki bada ere, Durangoko udalean ia 30.000 biztanleri zerbitzuak eskaintzeko lanean diharduten langileen kopurua eta ofizio zenbait aipatzen dira. Gure eskola gure udala izango dela esan badugu, gure eskola-komunitatea zenbaterik eta zein funtzioekin osatzen duten jakitea da helburua.

Informazio hori lortzeko ate ezberdinak jo beharko dituzte ta hori da hain zuzen helburua: zuzendaritza, sukaldea, etxean gurasoei galdetu... Informazio horrekin osatu beharko dute taula.

Behatu, hobetzeko

Azken xedeari begira talde tematiko bi (taldeak gehiago izan daitezke) osatuko ditugu: **Jantokiko taldea** eta **Jolastokiko taldea**. Udal batean informazioa jaso eta erabakiak hartzen badira, ikasleek ere horixe egin beharko dute.

Astebetetz jantokiarekin eta jolastokiarekin lotutako hainbat puntu behatu eta haiei buruzko informazioa jaso beharko dute (puntu batzuk aletuta daude baina beste batzuk ere agertu

daitezke). Behaketa horretan badaude zuzenki ikasleen ardurak ez diren puntuak baina badira beraiek rol garrantzitsua jokatzeko dutenak ere. Helburua, azken finean, arazoaren eta konponbidearen parte direla ohartaraztea da ("Errudunak/arduradunak ez dira beti besteak").

Azken ekoizpena. Ondorioak atera

1. Astebeteko behaketaren ostean talde bakoitzak ateratako ondorioak idatziz zerrendatuko ditu. Gainontzeko ikasleei aurkeztu beharko dizkietela kontuan hartuta, aurkezteko modurik egokiena zein den hausnartu (adibideak jartzeko berbaz nahikoa ez bada, marrazkiak, argazkiak... erabili).
2. Ondorioak ikaskideei aurkeztu. Beste taldeenak entzun eta guztien ekarpenak kontuan izanda behaketan antzemandako arazoaren eta konponbidearen zerrenda osatu. Adostasun handiena biltzen duten puntuak nabarmendu. Adostasunik biltzen ez dutenen zergatien gainean berba egin.
3. Behin zerrenda osatuta, eskolako zuzendaritzari aurkeztu. Ikasleak beraiek izan daitezela proposamena zuzenean eramango dutenak, bitartekaririk gabe.

Zer ikasi dut?

Atal denetan azaltzen dira ebaluazio galdera hauek. Ebaluazioa atal ezberdinetan banatuta dago. Alde batetik, beraiek ikasitakoa azaltzen da. Bestetik, taldean edo taldekideengandik ikasitakoa eta azkenik, materiala edo unitatearen ebaluazioa. Ahoz zein idatziz egin daiteke.